

Komisioen tarifak, baldintzak eta **bezeroei jasanaraz daitezkeen** gastuak

2019.12.23tik indarrean

08. EPIGRAFEA AURREABALAK, ABALAK, BARRUKO KREDITUAK ETA BESTE BERME BATZUK

ZEHAZTAPENA	IKASKETA GASTUAK (15. oharra)		FORMALIZAZIO BAKOITZEAKO (Berme bakoitzean)		ESKURAGARRITASUNA	ARRISKUAREN ARABERA (Hiruhilekoa edo zatikia)	
	%0	MINIMOA Euroak	%0	MINIMOA Euroak	%0 HIRUHILEKOA	%0 BERMEAREN ZENBATEKOAREN GAINEAN	MINIMOA Euroak
1. AURREABALAK	10,00	150,25	10,00	150,25	---	20,00	60,00
2. ABAL TEKNIKOAK	10,00	150,25	10,00	150,25	5,00 (6. oharra)	20,00	60,00
3. ABAL FINANTZARIOAK							
3.1. Urtebete arte	10,00	150,25	10,00	150,25	5,00 (6. oharra)	20,00	60,00
3.2. Urtebete baino gehiago	10,00	150,25	10,00	150,25	5,00 (6. oharra)	20,00	60,00
KREDITU ARRUNTA, AGIRIDUNAK ETA ONARPENAK (Barruko kredituak)	IKASKETA GASTUAK (Behin)		ERAGIKETAKO (8. oharra) (Behin)		IKASKETA GASTUAK (Behin)		
	%0	MINIMOA Euroak	%0	MINIMOA Euroak	%0	MINIMOA Euroak	MINIMOA Euroak
Ordainagiri soleko eta Dokumentazioa	4. EMANDAKOAK (7. oharra)						
	4.1. Ezeztazina	5,00	150,25	7,5	21,04	2,00	18,03
	4.2. Onarpenak	---		---		6,00	18,03
	4.3. Geroraturako ordainketa (Ikus 14. oharra)	---		---		5,00	18,03
4.4 Aldaketa bakoitzeko 25,00 euro (Ikus 10. oharra)							

KREDITU ARRUNTAK, AGIRIDUNAK ETA ONARPENAK (Barruko kredituak)	KOMISIOA ERAGIKETA BAKOITZEKO			
	%0	MINIMOA	BEHIN	APLIKAZIOA
		Euroak	Euroak	
5. JASOTAKOAK (9. oharra)				
5.1. Jakinarazpeneko/ abisuko	5,00	40,00	----	Behin
5.2. Berretsi gabeko eta berretsitako kredituen izapidetzea, eragiketa bakoitzeko	12,00	45,00	----	Behin
5.3 Berretsitako kredituetako arriskuagatik.	3,00	40,00	----	Hiruhilekoa, hilabetetan hain- banagarria
5.4. Atzerapengatiko edo geroratutako ordainketako.	5,00	15,03	----	Hiruhilekoa, geroratuko zenbatearen gainekoa
5.5. Jasotzen diren beste batzuk:				
5.5.1. Transferentziako.	3,00	18,03	----	Behin
5.5.2. Ezeztapeneko (Ikus 12. oharra)	----	----	25,00	Ezeztatutako espediente bakoitzeko
5.5.3. Aldaketa bakoitzeko (Ikus 10. oharra)	----	----	25,00	Aldaketa bakoitzeko

- 1. OHARRA** Ulertuko da Epigrafe honetan sartzen dela Ogasun Publikoak emandako berme oro eta bezeroak hirugarren baten aurrean bere gain hartutako betebeharren edo konpromisoen betetzea ziurtatzeko ematen diren mota guztietako kauzio, berme eta fidantzak.
- 2. OHARRA** Aurreabakal negozio juridiko batzuk dira, zeinaren bidez bankuak hitzematzen duen behin betiko abala emango diola eskatzen duen pertsona edo erakundeari, bermearen onuradunaren arabera, betiere, konpromiso horretako baldintzak betetzen badira, ez baitago, inola ere, bankuaren borondatearen menpe.
- 3. OHARRA** Izaera teknikoko abalak dira Banku abal-emaileari ordaintzeko obligazio zuzena ematen ez dien baina abaldu-nak bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez dituen erantzuten dutenak.
- 4. OHARRA** Abal finantzarioak komertzialak edo ez-komertzialak izan daitezke. Lehenak izaera komertzialeko eragiketegi dagozkie eta edozein motako ondasunen salerosketan, ordainketa-zatikapenean, aurrez emandako zenbatekoetan eta abarretan ordainketa atzeratuari erantzuten diote. Bigarrenek, oster, bezero abaldunak beste entitate batzuetan lortutako kreditu edo maileguri erantzuten diete eta Banku abal-emailea behartuta dago horiek itzultze-ra; oro har, finantza-letren edo kreditu nahiz mailegu-polizen abalak izaten dira.
- 5. OHARRA** Arriskuagatik komisioa aurrez kobratuko da. Iraungitze-data zehaztu gabeko bermealdia duten abaletan, komisioaren zortzapena abala edo bermea jasotzen den dokumentuaren itzulketarekin amaituko da; horren ezean, haren baliogabetzearekin, modu fede-emailean eta Banku abal-emailearen gogobetzearekin burututa, edota, hala balegokio, hartzekodun berme-emailearen erreklamazio eskubidea iraungitzen edo preskribatzen denean. Iraungitze zehaztua duten gainerako bermeetan, komisioaren zortzapena abalaren edo bermearen iraungitzearekin amaituko da, edo haren baliogabetzearekin, modu fede-emailean eta Banku abal-emailearen gogobetzearekin burututa, edota, hala balegokio, hartzekodun berme-emailearen erreklamazio eskubidea iraungitzen edo preskribatzen denean. Bermeetatik eratorritako komisioak horiek jasotzerakoan indarrean zien betebeharrak nagusiaren zenbatekoaren gainean kalkulatu dira, gehi betebeharrak horren ez-betetzeetik erator daitezkeen subsidiarioak eta osagarriak.

- 7. OHARRA** "Emandakoak" direla ulertzen da gure Bankuak, agindua eman duen bezeroaren jarraibideei jarraituz, abal-emaille edo -onartzaile gisa esku-hartzen duen kreditu arrunt eta agiridun zein onarpen guztiak.
- 8. OHARRA** Komisioak kreditua edota arriskuarena irekitzeko agindua ematen denean kobratuko dira, hiruhilero aurreratu-ta.
- 9. OHARRA** "Jasotakoak" direla ulertzen da Espainian helbideratutako bankuek emandako kreditu arrunt eta agiridun zein onarpen guztiak, gure Bankua jakinarazle, ordaintzaile, negoziatzaile edo onartzaile gisa aritzen denean, bezeroaren berrespenarekin edo gabe.
- 10. OHARRA** Aldaketagatik komisioa horren zenbatekoa gehitzeagatik edo eragiketaren epea luzatzeagatik sor daitezkeen komisio gehigarrien kobraketa alde batera utzita aplikatuko da.
- 11. OHARRA** Posta gastu kontzeptupean jasoko dira bidalketa bakoitzean sortutako frankeoarenak, eta bezeroari jasanaraziko zaizkio korrespontsalaren gastuak ere, horiek egonez gero.
- 12. OHARRA** Kreditua erabili gabe iraungitzen bada, 15,03 euroko ezeztatze-komisioa jasoko da, dagozkion beste komisioez gain.
- 13. OHARRA** Erreklamazio-gastuen kontzeptupean, zenbatekoa ordaindu izan denean edo eragiketaren arabera hala dago-kionean, 30,00 euroko komisio finko bat kobratuko da, behin bakarrik eta izenpe bakoitzeko (mugaeguneratutako zordun-posizio berria) eta, betiere, erreklamazioa benetan gauzatu izan bada
- 14. OHARRA** Geroratutako ordainketaren komisioa gerorapen horren aldiaren gainean kalkulatu da.
- 15. OHARRA** Ez da komisorik jasoko abalen azterketagatik aurretik ere aurreabalak eman izan badira eragiketa horiengatik eta kobratu izan bazaie zegokien komisioa.